

SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK: OINARRIAK

1. Oinarrien xedea eta objektua. Deialdi honen xedea da Sakanako euskarazko hedabideak diruz laguntzeko modua arautzea.

2. Diru-laguntzaren onuradunak. Deialdi honetan arautzen diren laguntzen hartzaile izan daiteke Sakanan egoitza fiskala duen pertsona fisiko edo juridiko oro, euskarazko hedabide baten jabe edo kudeatzaile dena.

3. Diru-laguntzaren gaiak eta kontzeptuak. Honako hauek izanen dira:

- a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, batez ere Sakanan zabaltzen direnak.
- b) Irratiak, Sakanan ohikotasunez emititzen dutenak.
- c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak.

Ondoko hauek ez dute laguntzarik jasotzen ahaliko:

- a) Euskara erabiltzen duten gaztelaniazko hedabideek.
- b) Alderdi politikoek zein sindikatuek argitaratutakoek.
- c) Elkaratek edo fundazioek beren kideen artean banatzeko argitaratutakoek.
- d) Eskola aldizkariak.
- e) Udal eta mankomunitateen informazio-aldizkariak.

Diruz lagundutako jarduerak 2018ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren arteko aldiari dagozkionak izanen dira.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa. Objektu honetarako, guztira, 80.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2018ko ekitaldiko aurrekontuetako 4 3350 4820002 (Euskarazko hedabideendako diru-laguntzak) kontu-sailean jasotako kredituaren kontura.

Kopuru hori modu honetan banatuko da:

- a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, Sakanan zabaltzen direnak: 40.000,00 euro.
- b) Irratiak, Sakanan emititzen dutenak: 10.000,00 euro.
- c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak: 30.000,00 euro.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitura duen organoak. Dena den, horrek ez du nahitaez beste deialdi bat egitea ekarriko.

Diru-laguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua gainditzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

5. Deialdiaren publizitatea. Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Diru-laguntzen Datu Base Nazonalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 30era bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko erregistroan:

- a) Eskabide ofiziala, behar bezala beteta.
- b) Identifikazio fiskaleko txartela.
- c) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehakaturia. Sarrerei dagokienez, bestelako erakunde publikoetan eta beste autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntzak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek edo enpresa pribatuek emandako bestelako diru-sarrerak (babesak eta publizitatea, esate baterako). Gastuei dagokienez, langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak hartuko dira kontuan.
- d) Irratsaioen edo argitalpenen ezaugarriak biltzen dituen txostena. Hedabide idatziek (egunkariek eta aldizkariak) hauek aipatu beharko dituzte: orrialde kopurua, aldizkakotasuna, argitaratzeko egunak, gaiak, egitura eta maketazio mota, eta proiektuaren nondik norakoak zehazki jakiteko behar diren elementu guztiak. Laguntzak irratirako eskatzen dituztenek honako hauek adierazi beharko dituzte: saioen iraupena, emisio egunak eta orduak, gaiak eta programazioaren nondik norakoak. Beste komunikabideekin batera egindako programazioen berri eman beharko dute berariaz, horrelakorik badago. Internet bidezko hedabideen gaineko datuak: eguneratze kopurua eta maiztasuna batetik, eta ikustaldiak, ikusitako orriak, ikustaldi bakoitzaren batz besteko denbora eta erreboteen ehunekoa bestetik.
- e) Eskabidea balioesteko aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.
- f) Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden; azkenengo kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izango da. Hona hemen zer helbidetan aurkeztu behar den dokumentazioa:

8. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte diru-laguntzak:

- a) Gutxienez ere aurrekontuko kopuru osoaren % 30 autofinantzaketa izatea.
- b) Sakanako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko du).

9. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

10. Ebazpena. Deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Sakanako Mankomunitateko lehendakariak emango du Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz, hamabost eguneko epean.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen-ebazpenean diru-laguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Diru-laguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2018ko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat jotzen ahalko da.

11. Balioesteko irizpideak. Euskara Batzordeak eskabideak balioetsiko ditu, ohiko saioan, eta honako alderdiak izanen ditu kontuan:

- a) Euskarazko eguneroko prentsa eta aldizkariak, Sakanan zabaltzen direnak.
 - Urteko argitalpen kopurua: 20 puntu.
 - Ale bakoitzaren orrialde kopurua: 20 puntu.
 - Argitalpen bakoitzean zabaldutako ale kopurua: 20 puntu.
 - Irakurle kopurua: 20 puntu.
 - Finantzaketa maila propioa: 10 puntu.
 - Produktuaren kalitatea: 10 puntu.
- b) Irratiak, Sakanan ohikotasunez emititzen dutenak.
 - Astean norberak ekoiztutako orduak: 20 puntu.
 - Entzule kopuru potentziala: 30 puntu.
 - Finantzaketa maila propioa: 25 puntu.
 - Produktuaren kalitatea: 25 puntu.
- c) Sakanari buruzko berriak eskaintzen dituzten Internet bidezko hedabideak.

- Sorturiko eta zabalduko albiste kopurua: 30 puntu.
- Bisita kopurua: 30 puntu.
- Finantzaketa maila propioa: 20 puntu.
- Produktuaren kalitatea: 20 puntu.

12. Diru-laguntzaren ordainketa. Lehendabiziko ordainketa diru-laguntzak esleitzeko ebazpenarekin batera egingen da.

Diru-laguntza 6 zatitan emanen dio Sakanako Mankomunitateak eskatzaileari, bi hilabetean behin alegia. Horretarako diruz lagundutako aldiaren egindakoari buruzko memoria zehaztua eta gastu zein diru-sarreraren frogagiriak aurkeztu beharko ditu. Horiekin batera, diruz lagundutako aldiari dagozkion ale idatzi guztien zein irratzaioen lagina aurkeztu behar dira. Ale horiek paperean edo euskarri informatikoan aurkeztu litezke. Ez da beharrezkoa izanen, argitaratu ahala, Sakanako Mankomunitatera bidali izan badira.

Onuradunak jarduera gauzatu duela behar bezala justifikatu ezean, ordainduriko laguntza osorik edo hein batean itzul dezala eskatzen ahalko zaio.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko da.

Azken ordainketa egin baino lehenago egingo da urte osoari dagokion kitapena. Horretarako, Euskara Batzordeko irizpena beharko da.

13. Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

14. Emandako diru-laguntzen publizitatea egitea. Onuradunek eman zaien diru-laguntzaren publizitate egokia egin beharko dute, eta beren komunikabideetan adierazi beharko dute Sakanako Mankomunitatearen diru-laguntza jaso dutela.

15. Diru-laguntzen itzulketa. Diru-laguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Egitasmoa aurkezturik eta diru-laguntza jasorik, gauzatu gabe uztea.
- d) Objektu bera duten eta bateraezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- e) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

16. Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

17. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Sakanako Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Sakanako Mankomunitateak duen jendearendako harrera bulegoan (Lakuntzan, Uriz 32) egikaritu ahal izango dira.

18. Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

19. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahal da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasiko da epe hori.

SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK: ESKABIDEA

Erakunde eskatzailea	
Izena	
Helbidea	
Herria	PK
①	E-posta
Kontu-korrontearen zenbakia	
Arduraduna	
Izen-deiturak	
Hedabidearen fitxa teknikoa	
✓ Argitalpenaren izena ✓ Lege gordailua eta ISSN ✓ Maiztasuna eta urteko zenbaki kopurua ✓ Harpidetza kopurua edo tirada ✓ Aleko eta urteko orrialde kopurua ✓ Emisio orduak astean eta urtean ✓ Lurralde-hedadura	
Aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak (azalpena eta kopuruak)	
Diru-sarrerak Harpidetzak Publizitatea Beste erakunde publikoetatik jasotako diru-laguntzak <u>Diru-sarrerak guztira</u> Gastuak Langileen gastuak Funtzionamendu-gastuak Inbertsio-gastuak Ekoizpen-gastuak Zabalkunde-gastuak <u>Gastuak guztira</u>	
Lekua eta data	
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	

Bildutako datu pertsonalak diru-laguntzen fitxategian gordeko dira. Bere helburua da Euskara Zerbitzuak ematen dituen diru-laguntzen eskaerak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea. Diru-laguntzei buruzko Legea da datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa. Sakanako Mankomunitatea da datu pertsonalen hartzailea. Datu pertsonalak diru-laguntzei eta administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz gordeko dira. Interesdunak berariazko baimena ematen dio Sakanako Mankomunitateari datuak tratatzeko. Aditzera ematen dizugu eskubidea duzula edozein mementotan zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen idatzia bidali beharko duzu Sakanako Mankomunitatera, eta zure nortasuna egiaztatuz beharko duzu zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita. Halaber, aditzera ematen dizugu egokitutako joz gero erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzula kontrol-agintaritza batean, hain zuzen ere, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

**SAKANAKO EUSKARAZKO HEDABIDEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK:
ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

☐ Entitatea ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

☐ Laguntza eskabide honetaz aparte ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

☐ Diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)